

Kantari kaleetan eta baserrietan

Herri askotan ospatu
dute Santa Ageda ▶ 6



Gaztetxo asko xexenen aurrean eta jend asko haiei begira

BAKARRA ▶ Ostiral Meheko
ekitaldi bakarrak jendetza bildu
zuen atzo zezen-plazan

INKESTA ▶ Aurtengo mozorroak
aurreratu dizkiote inauterizale
batzuk HITZari ▶ 3



TOLOSA ▶

Karroza eta konparsen azken prestaketak

Ferialekuan daude
ezkutatuta biharko
sekretuak ▶ 4-5

NEKANE ARSUAGA ▶
INAUTERIZALEA



HITZA

«Egun batzuk
lehenago
urduri jartzen
naiz» ▶ 2

ZABALA

KAFEAK

**ONDO PASA
INAUTERIETAN!**

Nafarroa etorbidea, 2 **TOLOSA**
Nagusi enparantza, 2 **ORDIZIA**

Tlf.: 943 65 47 95
Tlf.: 943 88 29 88

Sastreria Aranguren

Gizon eta emakume

**Ondo pasa
Inauteriak!**

Korreo, 4 • Tel.: 943 670525
Korreo, 1 • Tel.: 943 673311
TOLOSA





Akordeoiak ere bere lekua izan du beti jai hauetan

ARGAZKI ZAHARRA ▶ Txaranga bakarrik ez dira Inauterietan musika jartzen dutenak. Akordeoiak ere bere tokia izan du. Jose Tarragona eta Isidro Larrañagaren akordeoi taldeak urtetan atera izan dira —eta ateratzen dira— kalejiran Inauteri doinuak jotzen. Argazkian Isidro Larrañaga —aita eta

semea— eta Tomas Arnal *Maño* akordeoiarekin. Begira daudenak ez dakigu nor diren. Beraiek jakingo dute. Tokia berriz, Eskolapio eta Zerkauri artean zegoen iturria dirudi. Elurra da argazkiko beste protagonista. Inauteri zuria izan ziren urte hartakoak. FIESTAS DE PRIMAVERA 1961

NEKANE ARSUAGA ▶ INAUTERIZALEA

«Inauteriak? Parranda giro handia eta parrandetan handiena»

Imanol Garcia. Mozorrotzen hasi zenetik ez du Inauteri bat bera galdu Nekane Arsuagak. **Nola azalduko zenioke Inauteriak ezagutzen ez dituen bati?**

Parranda giro handia eta parrandetan handiena. Parrandazale ez denak jai dauka.

Eta nola sentitzen dituzu zuk? Nik batzuetan esaten dut egun batzuk lehenago urduri jartzen naizela, ume txikiak Errege bezperan bezala. Aste bete lehenago azkeneko prestaketak egiten ari zarenean, eta zer esanik ez, Ostegun Gizenean lehenengo txaranga entzuten duzunean urduritasun puntu bat jartzen zaizu.

Barruan eramaten diren festak dira.

Jende bati, koadrilakoei, berdin zaie Inauterietan gelditu edo kanpora joan. Urte batean egin nuen saikera eskiatzera joateko, baina igandean bueltatu nintzen. Kanpora ateratzeko aukera asko daude eta Inauteriak urtean behin dira.

Beraz txikitatik bizi izan dituzu Inauteriak.

Lehen ez zegoen orain aisialdi taldeek antolatzen dutena. Gu gure kasa ibiltzen ginen. Buruan daukadan lehenengo mozorroa hamalau urterekin edo izan zen lagun batekin. Nik aitonaren traje zahar bat hartu nuen eta berak bere amonarena. Orduan ez zen hainbeste mozorrotzen: umeek txilaba janzten zuten eta listo.

Ordutik asko aldatuko ziren gauzak.

Ni beti koadrilan ibili naiz. Alde horretatik ez da asko aldatu. Zertaz mozorrotu pentsatzerakoan, nola beti hain irekia izan den ez da aldatu. Nahi baduzu elegante edo zapatsu bat eginda. Nahi baduzu hamalau edo bakarrik. Dena zilegi da. Musika estiloa bai aldatu dela. Garai batean eskolek jartzen zituzten txokoriek oso giro polita ematen zuten. Orain bakarrik tabernan gelditu da eta bideratzen du



HITZA

TRAGO BATEAN ▶

Nola aukeratzen duzue mozorroa? Igandetan aktualitateko gaia, normalean politika edo erlijioa. Astelehenera, musikaren inguruan, juerga giroan. Asteartekoa batzuetan igandean bertan gertatzen zaigu.

Gustuko eguna? Ez dut bat. Nola ateratzen den eguna.

Gustuko mozorroa? Berezik ez. Urtero oso ondo pasatzen dugu.

festak gehiago tabernetara. Eta horko giroa aldatu da musika estiloan, orain amerikarra da. Bestalde, aldaketak oso modu naturalean egiten dira: danborradan erreginaren aukeraketa kentzea, aisialdi taldeen parte-hartzea...

Momentu onak asko izango ziren. Horietako bat?

Orain bi urte talibanetaz atera ginen. Joko handiena alfonbra zahar batek eman zigun. Tabernetan alfonbra zabaldu, errezoan jarri eta taberna guztia hasten zen gurekin.

DATUA ▶

10 urte beteko ditu gaurko Danborradan Berazubiko taldeak: 45 danbor Fermin Asensoren zuzendaritzapean. Hurrengo urtetik kainoia ateratzen dute. Aharia ere atera izan dute. Neskak eta mutilak batera ateratzen lehenak izan ziren. Sekulako euri zaparradak bataiatu zituen orduan.

TRENAK ▶

Renfek, tren zerbitzu bereziak jarri du Inauterietarako, gaur, bihar eta astelehenean:

TOLOSARA

Igandean eguneko zerbitzua indartuko dute.

TOLOSATIK

▶ Arratsaldeko azken bi trenetan plaza kopurua bikoiztu egingo dute.

▶ Gaueko 22:10etik goizeko 07:00etara etengabeko zerbitzua izango da.

▶ Zerbitzu bereziak izango dira Brinkolako norabidean 02:00etan, 03:50etan eta 05:20etan; eta Irungo norabidean 01:00etan, 03:00etan, 05:00etan izango dira trenak.

▶ 05:30etik aurrera ohiko trenak izango dira. Lehen bietan plaza kopurua bikoiztu egingo dute.

▶ Brinkolarako trenak Geltokitik abiatuko dira eta Irunerakoak, apeaderotik.



Tolosako tren geltokia. J.SAIZAR

KANTAK ▶

‘PASTELERO’ Artillero dale fuego ezkontzen zaigula pastelero. Eta zeñekin? Eta norekin? Orpo zikiñaren alabakin.

Orpo zikin gona luze, atzeko-aldeko erregidore. Jotzen zioten tarrapatatan, zergatik neskatza zatarra zan.

Orpo zikin, gona luze, kaleko loiaren erregidore. Deitzen zioten zarran zan zan zergatik neskatza zatarra zan.

HERRIKOIA



ZEZENAK ▶

Harrapatzen bazaitu...

Festa handia izan zen atzokoan Tolosako zezen-plazan; jai giroan, ederki pasa zuten gaztetxoek xexen txikiekin



Kabi Alai sartzarekin festa areagotu zen Tolosako Zezen Plazan. I.TERRADILLOS



Zezena noiz atera irrikaz egon ziren zain gaztetxoak atearren aurrean. I.TERRADILLOS



Xexena xirikatzen egon zirenetakoren batek kolperen bat jaso zuen. I.T.



Babesa bilatzen dute hesiaren atzean xexena gertu dutenean. I.T.

IÑIGO TERRADILLOS

Tolosako Inauterietan mozorroak protagonista nagusi badira ere, zezenek ia festek irauten duten egun guztietan dute hitzordua zezen-plazan eta giro aparta sortzen dute arratsaldero, hauek gabe Inauteriak ezin imajina ditzakegularik.

Atzo, Ostiral Mehe, egun honetan normala den bezala, xexen txikiak atera zituzten plazaren erdigunera. Beraz, gaztetxoak izan ziren hauekin gehien gozatu zutenak.

Ia baterik ageri zen Tolosako Zezen-plaza; gazteak eta etxe-ko txikiak euren gurasoekin ziren, batez ere, bertaratu zirenak. Kolorez baterik eta jendea alai eta irrikaz zegoen xexenak noiz aterako zain.

Kabi Alai sartzarekin batera hasi zen festa bertan, hauen doinuekin jendea erabat animatu baitzen. Salto eta brinko, hondar gainean zeudenek txarangaren atzetik ekin zieten plazari bira eman ez.

Segituan gorde ziren, ordea, babesean, lehen xexena atera zutenean kanpoan zeudenetarikoko asko; beste asko gertau zen, baina xexena xirikatu nahian eta saiakera horretan izan ziren adardunak harrapatuta lurrera erori zirenak.

Xexenen ondoren zalditxoek txanda izan zen txikien gozamenenerako.

Hurrengo egunetan zezen handiagoak aterako dituztenez helduagoek izango dute hauek zirikatze aukera.

INKESTA ▶ ZER MOZORRO AUKERATU DUZU AURTEN?

JULEN ALBENIZ
(TOLOSA)



«Aurtengo Inauterietan pirataz jaztea erabaki dut, gainera ez da lehendabiziko aldia izango».

ANE PEÑA
(TOLOSA)



«Txiribiton pailazoz mozorrotuko naiz egun batean eta bestean, berriaz, Mickie saiguaz, baina pailazoaren da nire gustukoena».

JOSEBA IRAOLA
(TOLOSA)



«Ni pailazoz eta Spiderman- ez mozorrotuko naiz aurtten. Mozorrotan, azken hau gustatzen zait bereziki».

JON ANDER PEÑA
(TOLOSA)



«Batman eta Cowboy moduan ateratzea pentsatu dut, asko gustatzen zaizkit mozorro hauek eta oso ondo pasatzen dut egun hauetan pertsonai bat irudikatuz».

ANE IRAOLA
(TOLOSA)



«Asko gustatzen zaidan mozorro bat jantziko dut aurtten ere eta errepikatu arren nire gustukoena izaten jarraitzen du beti, pailazoarena, alegia».

NAROA ALVAREZ
(TOLOSA)



«Campanilla izango da nire aurtengo mozorroa. Gehien gustatzen zaidalako errepikatuko dut berriro ere mozorroa».

LEIRE REY
(IBARRA)



«Sorginarena, sevilanaz eta Donald ahatearen mozorroak aukeratu ditut nik. Atsegin dut mozorroa jartzea eta horregatik hiru egunetan mozorro desberdinarekin irtingo naiz kalera».



KARROZEN ETA KONPARTSEN PRESTAKETAK ▶

Azken mailukadak eta beste

Ferialekuen horniek ezkatzen dute 2005eko Inauterien hainbat sekretu; Zaldunitatik aurrera San Frantziskon ikusgai izango diren karrozak eta konpartsak daude bertan, azken ukituen zain

IRATXE ETXEBESTE
LEIRE MONTES



Karrozak eta konpartsek gainera da egunotan Ferialekua, azken ukituen zain; egindako lanen emaitza laster izango da ikusgai. I. Etxebeste

Ferialekua horiek ezkatzen dute egunotan 2005eko Inauterien hainbat sekretu. Bertan daude gordetarik karroza eta konpartsa asko, kalera ateratzeko zain. Era guztirako tresnak eta materiala aurri daitezke haien inguruan. Baina, gehienek, azken ukituak besterik ez zaizkie falta.

Asteazkenean egin ziren bisita Hirzak bertan buru-belarri lanean ari diren inauterizaleak. Asteazkenean egin, eta karrozarien galderei erantzuteko prest ziren guztiak. Umortetsu erantzun, gainera, festa hosi baino lehen, baina dagoeneko Inauteri giroan.

Mintxo eta Perea lanerako jantziarekin ari ziren azken prestaketekin gora eta behera. Korkobado y C.I.A. Karrozan aterako dira haiek eta beste 13 lagun. Zaldunitan eta Asteartan, Rio de Janeiroko (Brasil) Inauteria ekarriko dute Toloosa, eta Pan de Azucar tontorra ere egin dute plataforma gainean. Eguerriak baino hamar ost egun lehenago ekin zuten prestaketak. Ideiak nondi daitezkie galdetuta, barre egiten dute biek: «Aterietan ateratzen dira beti ideiak onenak! Hala xe erabakitzen dugu guk gaia, eta tolosar gehienek hala pasatzen zaigula pentsatzen dugu. Larunbatetik hemen lanean egon eta gero ere afalazera joaten gara askotan, badakizue, gaitari forma emanon jarraitu behar dugun eria. Dagoeneko karrozan ateratzen diren seigarren urtea da, eta aurtengo lehiaketan aldatuak diren pozik dira. «Ez geunduen batere gustura epainmahaiak jarraitzen zuten irripideekin, eta aldatzea oso beharrezkoa zela iruditzen zaigu».

Aldamenen, Javier Ugarte, Juan Ramon Insausti eta Miguel Vacas ari ziren beheren karrozak atontzen. Bi aterako dituzte: Kunta Kinte Askatu Zaldunitan eta Asteartitan, eta Baskal Dhesa Argentina Asteartitan. 2004ko abenduaren San sartu zihutzen karrozak Ferialekua, eta dera bertatik dituela diote: «Asteo gastatu dugu, gutik behera aldatu baititugu karrozak. Ia egunero etortzen gara lanera hona. Bix asteburuetan, zer esanik ez. Orduan betetzen da Ferialekua». Aurrekoek bezala, hauek ere ideiak mahai inguruan burutzen zaizkie: «Bazkariak egiten ditugu, eta bilera gastronomiko horietan sortzen dira gaia, diote. Irribarresu, Po-

zik dira aurtengo lehiaketa aldatu egin delako: «Herritarrengandik sortu zen proposamena, eta azkenean Udalarekin adostea lortu dugu. Aldatzeko beharra zegoen, eta era berririk denoi mesede egingo digula zuzur gauden».

Metro batzuk aurrerago, boko batean, lagun koadria handi bat batera eta bestera ari ziren, konpartsa azken ukituak ematen. Josu Carrera, Jose Luis Ugarte mendiak, Josune Oiarbidek, Xabier Balardi, Ane Beldiak eta Ander Balardi tritikiak osatzen zuten Taloio, Pirritx eta Porrotx Parrandan konpartsa ordezkaritza.

Errege ondoren, hazi ziren prestaketekin, eta Zaldunitan eta Asteartitan 14 lagun, haur

PEREA ETA MINTXO

KORKOBADO Y C.I.A.

«Ez geunduen batere gustura epainmahaiaren irripideekin; aldatzea oso beharrezkoa zela iruditzen zaigu»

J. RAMON INSAUSTI

KUNTA KINTE ASKATU

«Ia egunero etortzen gara hona lanera, eta asteburuetan zer esanik ez; orduan betetzen da Ferialekua»

JOSUNE OIARBIDE

PARRANDAN

«Umertzat egokiena zer izan daitekeen kontuan hartuz aukeratu ditugu gaiak koadriaren

eta heldu, aterako dira bertan. Guztiak ez dira tolosarrik baina bai inauterizaleak: «Tolosarrak, irurarrak, hernaniarrak, ordizarrak... Beretik dugun taldean. Gertu bizi izan ditugu beti inauteriak, eta gustura hartzen dugu parte». Iaz, paila-zero beren atoneki jarraituz, pirratz mozzorrotu zen koadria, eta umeko oso ondo pasatu zutela ikusita, horrekin jarraitzea pentsatu zuten: «Iaz umeko oso gustura aritu ziren, abestiak kantatuz, giroa gozatu. Umertzat egokiena zer izan daitekeen kontuan hartuz aukeratu ditugu gaiak koadriaren eta, horregatik, lazioarekin jarraitzea erabaki genuen». Lehiaketa berriz galdetuta, «herritarren festa izanik, herritarren alde egiten duten onarririk ezarria beti onen dela erantzun dute».

Karrozzen irteera puntuak

Zaldunitan, Asteartean eta Asteartitan, guztira, 14 karroza, 19 plataformadun konpartsa eta 87 konpartsa izango dira ikusgai San Frantzisko ibilbidean.

Bi egunetan ateratzen direnek zehaztuta dute dagoeneko irteera puntuak. Zaldunita egunean ondorengoak aterako dira Gehoki aldetik: Non dago edertasuna, Rantxo-enea, Ba-



Kunta Kinte Askatu. Miguel Vacas, Juan Ramon Insausti eta Javier Ugarte, Kunta Kinte Askatu konpartsa kideak. Inauterietan ekin baino lehen—asteazkenean elkartu zen Hirza haiekin—prest ziren emanaldia zainbo bat eskaintzeko. Euskal Ebea Argentina karrozan ere aterako dira. I. Etxebeste



Parrandan. Josu Carrera, Jose Luis Ugarte mendiak, Josune Oiarbide, Xabier Balardi eta Ane Beldi, Taloio, Pirritx eta Porrotx Parrandan konpartsa. 14 lagun aterako dira bertan. I. Etxebeste

El korkobado y C.I.A.

Mintxo eta Perea, karrozan 18 lagunek elkarriko dituzte Toloosa Rio de Janeiroko (Brasil) inauterietan kolorea, musika, dantza eta festa giroa. I. Etxebeste

iragarki laburrak ▶

<p>Teléfonoak. Herriargiteak. Plaza Iribarren erakunde publikoarenak. Informazioa doan. 943 65 01 93.</p> <p>Onak. Sakalderi laguntzaileak, sukaldariek, zerbitzuak. Plaza Iribarren eskolak. Eusko Jaurlaritza. 943 65 01 93 telefonoa.</p>	<p>Erakuntza. Igehienak, peñak. Plaza Iribarren Gogokiko udaltza. Informazioa doan. 943 65 01 93.</p> <p>Gidariak. Plaza Iribarren eskolak. Eusko Jaurlaritza. Aldundia. Informazioa doan. 943 65 01 93.</p> <p>Haur Hezikuntza. 3.200 plaza.</p>	<p>Surbidita libre. Informazioa doan. 943 65 01 93.</p> <p>Administrazio laguntzaileak. Laster sarerak udal hauek. Herriari, Urturi, Irujo, Bascas, Alzuri, Bergara, Zornales, Mutilu, Zuzuri, Mendara, Anosta. Informazioa doan 943 65 01 93.</p>	<p>Mantenua. Erdiherriak, Irujoak, soldatak, igiteriak. Plaza Iribarren erakunde publikoak. Informazioa doan. 943 65 01 93.</p> <p>Peñak. Erdiherriak, Irujoak, soldatak, igiteriak. Plaza Iribarren erakunde publikoak. 943 65 01 93.</p>
--	--	---	--

Egurrezko lehoiak, kontraleihoak, atek eta eskailerak neurria

JANIZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tel. 943 67 36 11 • Faxa: 943 67 36 55
"Cuatro vientos" Industrialdea, 1
Xarisma auzoa • 20491 Leaburu

KARMELE
ilepaindegia eta gaiak

ONDO PASA INAUTERIAN!
San Frantzisko, 25 • TOLOSA • Tel.: 943 65 26 02

Ondo pasa Inauteriak!

ARRABURU
Saldia (Bosque), Plaza Zaldunita Euzko Jaurlaritza, 102 m², Berriz, 01001. Informazioa: 943 65 01 93.

Saldia (Bosque), Plaza Zaldunita Euzko Jaurlaritza, 102 m², Berriz, 01001. Informazioa: 943 65 01 93.

Saldia (Bosque), Plaza Zaldunita Euzko Jaurlaritza, 102 m², Berriz, 01001. Informazioa: 943 65 01 93.

Saldia (Bosque), Plaza Zaldunita Euzko Jaurlaritza, 102 m², Berriz, 01001. Informazioa: 943 65 01 93.

Saldia (Bosque), Plaza Zaldunita Euzko Jaurlaritza, 102 m², Berriz, 01001. Informazioa: 943 65 01 93.

943 65 17 13 / 677 46 09 16

www.saldias-miguel.com
saldias@saldias-miguel.com

Saldias Miguel
Nº D.G.S. J.1759

ASEGURURATU ARTXERKATITZA

SANTA AGEDA BEZPERA ▶



Villabona. Jesusen Bihotza ikastolako DBHko bigarren zikloko ikasleak, herrian barrena ibili ziren eskean. Beraiek sortutako koplak, ikasle desberdinek txandaka, bozgoragailu batekin kantatu ondoren, Santa Eskeko propioak direnekin jarraitzen zuten. JAIONE ASTIBIA



Leitza. Goizean etxez etxe ibili ziren umeak «Agira-agirando» kantatuz. Ez asko, ordea, zenbait auzotan. Ikasketa bidairako eskean aritu ziren, bestalde, trikitilari eta guzti, institutuko ikasle gazteak, leihopetan maindirea jarriz. Batzutan kaskarrekoak hartuz. J. ASTIBIA



Urkizu. 16:30ean Olarrain auzotik abiatu zen taldea Urkizura Santa Ageda bezpera zela eta, han kantari aritu ziren neska-mutilak baserriz baserri, arratsalde gutzian zehar. NOELIA LATABURU



Aduna. Plazan elkartu eta bi taldetan bantu ondoren, gazte eta heldu, gizaseme eta emakume, ahotsa goxatzen aritu ziren, baserrietara eskera atera baino lehen. J. ASTIBIA



Alkiza. Herriko taldea lehen aldiz elkartu da aurtengoan Santa Ageda bezpera ospatzeko. Arratsaldean bildu ziren denak plazan entsegu txikia egiteko eta ondoren herriko etxe eta baserrietan ibili ziren eskean eta kantari. NOELIA LATABURU

Baserriz baserri ibiliz kantu kantari ariz

Gutxi asko, eskualdeko herri guztietan ospatu zen Santa Ageda bezpera eguna, eskea eginez edota kalejiran ibiliz

JAIONE ASTIBIA
NOELIA LATABURU

«Santa Ageda bezpera dugu/ oles egitera gatoz/ etxerik etxe ohitura zaharrak/ aurten berri-tzeko asmoz...» Atzo Santa Ageda egunaren bezpera, koplak kantari aritzeko eguna izan zen gure eskualdeetako herrietan ere eta horrelako doinu eta letrak entzuteko aukera izan zen txokoetan. Gehien-

tsuenetan atera ziren taldeak eskera edo eztaurri gozatua ematera, gutxienez.

Batzuk goizen abiatu ziren baserriz baserri eskea egitera, Asteasun esate baterako. Kasu berbera izan zen Leitza, baina azken honetan umeak herrian bertan ibili ziren, etxez etxe, dirua, goxokiak, pastak, jostailuak, puzgarriak eta bestelakoak bilduz. Halaber, institutuko ikasle koadrila, trikitilariak on-

doan zituztela, ibili ziren kalez kale maindirea pasatuz. Arratsaldean baserrietan ibili ziren. Iluntzean, trikitilariekin kalejira egin zuten, koplak kantari herrian barrena eta ondoren arratsaldeko mutur bat egin Karrapean txistorra eta gazta bokadu goxo eta beroak eginenez.

Arratsaldean goiztiarrenak anoetarrak izan ziren, izan ere, ikastolan entsegua egin ondo-

ren, baserriz baserri joan baitziren eguneko festa egitera. Auzoko herrian, Villabonan, Jesusen Bihotza ikastolakoak ere gauza bera egin zuten, baina herriko bazterrak alaituz. Beranduxeago atera ziren Eresargi abesbatza lagun zutela, herriko Kultur Etxetik, kalejira herrikoian.

Beranduxeago atera ziren Tolosako Olarrain auzoko taldekoak. Urkizura igo ziren eta baserriz baserri jaitsiera egin zuten kantuan eta eskean. Berehalakoan iritsi zitzaizen txanda Adunakoei, adibidez. Hauek, gainera, aurten eskean bildu zuten dirua sahararrentzat jakiak erosi eta bidaltzeko erabiliko dutela eman zuten jakitera. Juan Kruz Igerabide herrietarrak egindako koplak kantatuz ibili ziren auzoz auzo. Alkizan, berriz, aintzinako usadio hau berreskuratuz, lehen aldiz

bildu ziren atzokoan kantu kantari aritzeko. Herriko plazan entsegu txiki bat burutu ostean, Alkizako etxeetatik ibili ziren eskean, gazte zein helduak.

Tolosako Gure Txokoa elkar-atea, Orfeoiko taldeko bat, Amaro-ko taldea, Lizardiko taldea, Ero-Etxe eta Emendek elkarte-etatik ere, besteak beste, atera ziren arratsaldean abestera ibilbide ezberdinak burutuz. Modu beretsuan Ibarroka Hauspoa elkarteak ere atera ziren, kasu honetan Millan Telleria albizturtarra koplari lagun zutela.

Beranduen atera zirenak alegiarrak izan ziren. Hauek Txin-txarri abesbatzarekin egin zuten kalejira, herriko txokoetan barrena.

Trikiti, makila eta panderoaren soinuak koplak eder asko entzuteko aukera izan zen.

GUTUN@K

izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Niregatik esanak direla-eta

Julian Sagastume Amezketako alkateak Ametzak taldeari zuzendutako gutuna erantzun beharrean nago, bere injustizia, ilegalkeria eta arduragabekeria onartu ordez, niri zuzendutako gezur, irain eta deskalifikazio gehiegi idatzi dituelako. Alkateak egiten ari dena justifikatzeko argudiorik ez duenez gezurra esan behar izan ditu herriarrak nahasteko.

Hasteko ni ez nintzen aurreko legegaldian agintari. Ez naiz inoiz alkate edo kontzejal izan. Eta Ametzak taldeko partaide izateko nire baldintza bakarra izan zen: inongo talde politikorekin loturarik gabekoa izatea gure taldea. Beraz, aurreko legegaldian hartu diren erabakiekin ados ez bazaudete haiei esan, edo legez errekurtsoa egin.

Ez dut inongo terrazarik egin Borda-Txurin. Erosi nuenean terraza eginda zuten. Hori edozein amezketarrak badaki.

Etxe barruko obra egiteko noski ez zenidatela proiekturik eskatu. Estructura edota instalaziorik berritzen ez zenez, ezin zenidaten proiekturik eskatu. Legez kanpoko izango litzateke egongela eta gelaren arteko paretak kendu, baldosak aldatu eta etxea pintatzeko Udalak niri proiektua eskatzea. Baimena lortzeko behar zena entregatu nuen eta oraingo Udalak baimen eman zidan. Alkateak eta taldekideek ikusi dute egindako obra eta denek dakite zehatz-zehatz eskatutakoa egin dudala. Hustu? Noski hustu dudala etxea, lehengo jabeak utzi zituen altza-

riak atera ditut, besterik ezer ez. Bordak ezin direla etxebizitza bihurtu ez dut nik esaten. Eusko Jaurilaritzak esaten du hori 28/1997 Dekretuan eta 5/1998 Legean. Beraz, honek ez du esplikazio gehiagorik merezi. Eta nik ez nuen bordarik erosi, etxebizitza erosi nuen, erregistroan eta ogasun bulegoan egiaztatu daiteke. Bordarena izena bakarrik du.

Alkate batek bere ekintzei buruzko kritikak onartzen jakin behar du eta kritika horien defentsa egiteko ezin du deskalifikaziorik egin, bizitza pertsonalean sartu, pertsonetikiko errespetu falta, edo irain eta gezurra erabili argumentuen ordez.

Nik sinisten dut Amezketako egoeraren soluzioan, amezketarren arteko elkarbizitza «sanoan». Ez idatzen bidez, baina bai egiazki publiko egin eta bakoitza behar den lekuan jarriz. Nik alkatea legez kanpokoak diren obretan ari delako eta bere buruari obra baimena eman diolako salaketa egiten parte hartu dut, araudiak denok betetzeko daudela pentsatzen dudalako.

Idatzi honekin dena argitu nahi dut eta gainera gutzia frogatzeko dokumentuak ditut, nahi dituenarentzako. Denborak jarriko du bakoitza bere tokian, eta horrela etorriko da konponbidea. Bitartean horretarako lanean jarraituko dut.

MAIDER ROMO ▶ AMEZKETA

Ametzak Julian Sagastumeri

Nagusia: Ametzak taldeak ez du nagusirik. Ametzak taldea pen-

tsaera politiko ezberdineta pertsonen osatutako taldea da, herriaren alde lan egiteko sortua. Hauteskundeetan %45a lortu zuen, gehiengo alegia, eta oraindik egungo udal-taldeak ez dio dagokiona eman.

Zerrategiak: Amezketako Udalak zerrak egun dauden lekuan kokatu zituen, zerrategiei irtenbidea emateko baino gehiago herria txukuntzeko. Orain, ezkutu egoteak ez du esan nahi han nahi duten gutzia egin dezaket. Dauden lekuan arauak bete behar dituzte, beste herriarrak guztiek bezala.

Horregatik etorri zen lehengo idatziko salaketa. Herriar bezala, behar morala sentitu dugu jendeari Julianen ekintzen berri emateko. Oso larria baita herriko egoeraren injustiziak egitea, eta are larriagoa alkateak egitea. Teorian herriarren eredu izan behar du. Formak, hitzak, jarreak, ekintzak... dena zaindu behar du.

Han esaten diren egien kontrako argudiorik ez dauka Julianek eta taldearen izenean idatzia sinatu zutenen kontra hasi da gezurretan eta irainka, herriarrak nahastu eta benetako arazo saihesteko. Idatzian geniona ziurtatu besterik ez du egin bere erantzunak.

Julianek badaki, bera Hirigintza Batzordean zegoen eta, aurreko legegaldiak emandako baimena zoruan hormigoia bota eta paretak egiteko zela. Baina geroz, paretak eta hormigoizko posteekin estalpea egiten ari da. Proiekturik gabe eta bere buruari lizentzia emanez. Alkate batek

ezin dio bere buruari dekretuz baimenik eman. Ez da legezkoa.

Azkeneko legegaldiko agintariak: aurreko lege-aldiko udal-taldeak ezagutuko ez balitu bezala hitz egiten du Julianek. Eta bera ere udal-talde hartako kide zen, eta ondo eta gaizki hartutako erabaki guztietan partaide izan zen.

Barkamena eskatu behar lieke, beraz, pertsonalki iraindu dituenen. Berak ondo daki biengatik gezurra esan dituela. Gezurra esan dituela frogatzeko dokumentuak udaletxean daude, herriarren eskura.

Herriaren onespena omen du. Hori herriak esan behar du. Eta hauteskundeetan herriak ez zuten hala esan.

Herri maitea. Maite dela esan ez baina maite egin behar da. Begiratu herriari eta entzun zer nahi duen. Hori da lehen pausoa, herri batek nahi duen udala izatea. Eta hortik aurrera beste gutzia. Gu horretarako prest egon gara beti, pentsa zenbat proposamen egin ditugun elkarbizitza normaltzeko eta denak ukatu dizkigute sistematikoki. Hori ezin dute ukatu.

Bukatzeke: Bada garaia gaur bere onera ekartzeko. Aspaldian gaude zai eta konponbiderako prest. Amezketak lasaitasuna eta pakea merezi eta behar du.

AMETZAK TALDEA (BIXENTE GOROSTIDI, JOXEPI BELDARRAIN, MIKEL GOÑI, AIORA ARANBURU, ARITZ LARRETA, YOLANDA GOROSTIDI, JOXE MARI AMUNDARAIN, GOTZONE ZUBILLAGA, AINARA GALARTZA, NAIARA REGIL...) ▶ AMEZKETA

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

- Alegialdea.** Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernialde.
Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. Medikua: 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarraldea. Osasun etx.: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Tolosa.
▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
▶ San Esteban: 00 68 00
▶ Gernikako arbola: 00 69 00
▶ Amaro zko dispen.: 67 26 37
▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
▶ Udalteingoa: 67 58 58
▶ DYA: 67 25 36
▶ Gurutze Garria: 67 48 88
▶ Ertzaintza: 53 88 20
Villabona-Aiztondo.
Anbulatorioa: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRIAOK

- ▶ Renfe Tolosa: 605 28 89
▶ Donostiako autobus: 36 17 40
▶ Taxia: 67 04 20
▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

- ▶ Galtzaundi: 65 50 04
▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32
▶ Tipi ttapa ald.: 948 631888

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Morant. Zaballarreta 1 (Tolosa). 943 673 849
Gimeno. Elbarren 52 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.
tolosa@tolosaldeko hitza.info
Villabona-Aiz. 687 41 00 22.
villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info
Anoeta. 687 41 00 22
anoeta@tolosaldeko hitza.info
Ibarraldea. 687 41 00 32.
ibarraldea@tolosaldeko hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
alegialdea@tolosaldeko hitza.info
Leitzaldea. 687 41 01 18.
leitzaldea@tolosaldeko hitza.info

GIZARTEA ▶

Konposta etxean egiteko deialdia

Tolosaldeko mankomunitateak hilaren 11 arteko epea eman du eskatzeko

J. ASTIBIA
N. LATABURU

Etxean konpostagailua jartzeko aukera eskaini du Tolosaldeko mankomunitateak, deialdi baten bidez. Egitasmo honez baliatu nahi duten herriarrek hil honen 11 baino lehen izena eman beharko dute Tolosako udaletxean bertan.

Ekimen honekin konpostai esperientzia bat jarri nahi du abian Tolosaldeko mankomunitateak, Gipuzkoako beste zenbait eskualdetan burutzen ari diren programaren harira. Egitasmo honetan parte hartu nahi duen etxe bakoitzak bere konpostagailua izan du eta, noski, hori ondo erabiltzeko beharrezkoa den formakuntza mankomunitateak berak

emango die eskatzaileei, jakitea eman dutenez. Izan ere, konpostagailuaren erabilpena zuzen eta egoki eginez gero, ez omen baita usain txarrik sortzen.

Neurri desberdinetakoak

Mankomunitateak eskura jarriko dituen konpostagailuak bi neurritakoak izango lirarteke: bata 420 litrokoa, 0,79 metro luze dituen oinarri karratua eta metro eta 5 zentimetrotako alturaduna; bestea, berriz, edukiz 660 litrokoa, 1,025 metro diametroan oinarri borobila eta 1,12 metroko alturaduna. Biak hala biak plastikozkoak dira.

Konposta etxean sortzen diren hondakin organikoak erabiliz egin daitezke, besteak beste eta lur beltzaren itxura duen ongarrria da. Hau, lorategi, baratza, belatso eta zuha-

aiztietan ere erabil daitezke eta erabiltzen da. Konpostagailuak egokiak dira, beraz, lorategi eta belarra duten etxeetan ipintzeko.

Etxean sortzen den zaborra sailkatzeko eta birziklatzeko beste aukera bat, eskura jartzen da, beraz, Tolosaldeko biztanleei.

Berezi
44-64
NEURRI BEREZIAK
ondo pasa inauteriak!
Herrerros kalea, 3- TOLOSA
Tel.: 943 67 49 65

iragarki laburrak ▶

- SALGAI**
Autoa. Seat Ibiza salgai. 1.9 TDI. 669 01 32 94
Ordenagailuak. Lau Imac 9.2 eta 3 PC GenuineIntel (128 HB) salgai, oso merke. Deitu 943 467 181 telefono zenbakira.
Etxea. Alegiako Larraitx zuoan etxea salgai. 680 57 09 52.

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko otsailaren 5a, larunbata ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Kuartzesketa, Adura, Abotzu, Alege, Alkiza, Altoa, Amerleña, Aroeta, Balaran, Beasanta, Berastegi, Eduain, Herrialde, Ibarra, Itxaspegi, Itzi, Larrin, Leizola, Lizartza, Oteñeta, Orosa, Tolosa, Vilabona, Zuzuki
bestenik: Leizaldeko Euskara Batzordea

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Eusko
Jaurjaritza.
Kultura Saila

GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

8

hotzena

5

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA
ARALARREN



Guardetxe: bai

Albi: bai

Pagomari: bai

Igaratza: bai

HITZA-KO BEZEROEN
ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak, harpide egiteko...)
943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Jose Manuel Oiartzabal alegiarraren Himalayako hamabost argazki jubilatuen tabernan.
Tolosa. Garziandia pilota txapelketa: Zabala-Jauregi Aranzabe-Galarragaren aurka; Urdaniz-Ruiz Izagirre-Olaetxearen aurka; eta Elizondo-Irurita Renobales-Mujikaren aurka. 10:15ean Beotibarren.
Orexa. Otsailaren 18n barrikotea egingo da tabernan. Izen emateko epea: otsailaren 11.

INAUTERIAK

Tolosa. Erraldoi eta buruhandien konpartsa, Tolosako Dultzaineroekin. Plaza Zaharretik irtengo dira 10:30ean; Kabi-Alai Elkarteko txarangaren irteera 11:30ean; Kabi-Alai Elkarteko txarangaren irteera 17:00etan; Haur Danborrada aterako da Geltoki kaletik 17:00etan; Tolosako Danborradaren irteera Triangulotik 22:30ean; e kitaldia *Galtzaundi* Kultur Etxeko balkoira igoz amaituko da: plaza Berrian disko festa, eta Iraunkorrek eta Oriako txarangak kalez kale ariko dira 23:30etik aurrera.
Tolosa. Txosnagunean haurren eguna: Haur danborradaren otean, haur jolasak, pailazoak eta txokolatada eta 24:00etan bertso lehiaketa.

GORA ETA BEHERA ▶ JOXEMI SAIZAR



Toreatzaile ugari zezentxoetan

Bada toreatzaile harrobia Tolosan. Zezenen tamainu txikiarekin animatuta nonbait, gaztetxo asko atera zen atzo zezen-plazako hondarrera, zezenaren aurreko abildadeak erakustera eta bareakin jolastera. Zaldunitan, Astelenitan eta Astearititan ateratzen dituzten zezen handiagoei aurre egiteko entrenamendu gisa balio dute atzokoek. Eta harmailetatik begira egon zirenak gustura.

INIGO TERRADILLOS



Jaietako egunik ahulena

Kaleak hutsik, girorik ez, Ostegun Gizeneko ajea... Zalantzarik gabe Ostiral Mehea Inauterietako egunik ahulena izaten jarraitzen du. Egitarauan oso ekitaldi gutxi dago: zezentxoak eta gaueko jaialdia. Aurten Ozenki txistulari taldearen kalejira ere faltatu da. Egiten diren bi ekitaldietan jende asko izaten da. Arpegiren jaialdirako sarrerak egun batzuk lehenago agortu ziren. JOXEMI SAIZAR

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Arantxi Ezeiza (Urkizu).
Urkizu-gaineko langileena.
Familiaren partetik.

HITZA, zorion agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:

Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA • Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!



Inauterietako egitaraua
Inauterietako argazki bilduma...

Zure argazkiak bidaliz gero,
gure web orrian azalduko dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

www.tolosaldeko-hitza.info

